

CAJA LABORAL PENSIONES SA GFP-REN ESG FAKTOREAK INTEGRATZEKO POLITIKA

1. POLITIKAREN HELBURUA

Politika honen bidez, Caja Laboral Pensiones SA GFPk barne hartzen dituen pentsio-funtsen inbertsioetarako finkatuta dauden ESG (ingurumena, gizartea eta gobernantza) faktoreen barneko integrazio-prozedurak definitu nahi dira, gizartearekiko arduratsuak diren inbertsioei dagokienez. Inbertsio horien helburua garapen jasangarria sustatzea denez, ingurumenari, gizarteari eta gobernu onari lotutako irizpideak hartzen dituzte kontuan.

Politika honek bi alderditatik heltzen die gizartearekiko arduratsuak diren inbertsioei:

- a) Esklusioaren, sektore sentikorren eta gatazken politikatik.
- b) Finantzaz kanpoko arriskuak eta ESG irizpideak (ingurumena, gizartea eta gobernantza aintzat hartzen dituztenak) Kudeatzailean integratutako pentsio-funtsetarako inbertsioak aztertu eta erabakitzekeo prozesuan integratzeko prozesutik.

2. ESKLUSIOEN POLITIKA

Negozio-etapa bakoitza politika honetan zehaztutako xede, printzipio eta irizpideekin lerrokatzea da Caja Laboral Pensiones SA GFPren asmoa. Ildo horretan, enpresa berriekiko harremanaren hasiera da funtsezko etapetako bat. Esklusioak lehen hesia dira prozesu horietan, ESG irizpideak erabili direla ziurtatzeko. Xede horrekin, Kudeatzaileak kanpoan uzten ditu hurrengo multzoetan aipatzen diren jarduerak eta sektoreak.

2.1. ESKLUSIO NAGUSIAK

Kudeatzailean integratutako pentsio-funtsetatik kanpo geratuko dira «arrisku handikotzat identifikatutako jurisdikzioen» zerrendan dauden herrialdeetako jarduerak/enpresak. [Zerrenda beltz hori Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak \(GAFIk\) argitaratzen du](#)¹.

Era berean, pentsio-funtsek ez dute harremanik izango Norges Bank Investment Management (NBIM)² erakundeak argitaratutako «[Enpresen behaketa eta bazterketa](#)» zerrendan agertzen diren konpainiekin.

¹ <https://www.fatf-gafi.org/en/publications/High-risk-and-other-monitored-jurisdictions.html>

Norvegiako funts subirano horrek epe luzeko ikuspegia duen erantzukizuneko eta etekinen kudeaketako politika du ezarrita, egungo eta etorkizuneko belaunaldien garapena bultzatzeko xedearekin. NBIMen eskusio-zerrendari atxikita, Kudeatzaileak erreferente azkar, ospetsu eta alderaerraza du eskura, eta baliabide hori beharrezkoa zaio batez ere pentsio-funts integratuen bidezko inbertsio-jarduerarako; izan ere, arlo horretan, erabakiak pertsona gutxi batzuek hartzen dituzte, eta banakako analisiak egiteko gaitasuna mugatua izan daiteke.

2.2. SEKTORE JAKIN BATZUETAN BAZTERTUTAKO JARDUERAK

Bazter uzten dira jarduera nagusia jarraian adierazten diren sektoreetan duten jaulkitzaileak, ESG inbertsioei dagokienez ez datozelako bat, printzipioz, Kudeatzailearen estrategiarekin.

Jaulkitzailearen diru-sarrera guztien % 50 gutxienez sorrarazten duena hartzen da jarduera nagusitzat.

Sektore jakin batzuen barruan baztertu diren jarduerak

Ausazko jokoak

- Ausazko jokoak eta, bereziki, onlineko apustuak eta/edo mendekotasuna sortzeko arrisku handia dutenak sustatu, gauzatu edo eskaintzen dituzten jarduerak.

Salbuespena

- Benetan xede soziala duten jarduerak.

Ikatza

- Ikatz-meategi berriak sortzea edo lehendik daudenak handitzea sustatzen duten jarduerak.
- Ikatzezko zentral elektriko berrien aldeko jarduerak.
- Ikatza erauzi, prestatu eta banatzearekin lotutako jarduerak.

Defentsa

- Gerrako armak ekoitzi, mantendu edo salerostea xede duten jarduerak, bereziki giza eskubideak urratzeko arrisku handia duten herrialdeetara bidaltzeko direnean.
- Zuzenean baztertzen dira arma eztabaidagarriak ekoiztea, mantentzea edo salerostea; hau da, jendea bereizi gabe edo neurritz kanpo zauritu dezaketen armak. Hauek joko dira arma eztabaidagarritzat:
 - pertsonen kontrako minak
 - arma biologiko, kimiko eta nuklearrak
 - barreiatze-munizioak eta uraniozkoak

² <https://www.nbim.no/en/responsible-investment/exclusion-of-companies/>

Salbuespena

- Salbuetsita daude aisialdiko armekin lotutako jarduerak.

Sexuaren merkantilizazioa

- Pertsonen sexu-esplotazioa egiten edo babesten duten eta giza eskubideen aurka doazen jarduerak, hala nola prostituzioa eta material pornografikoaren ekoizpena.

Meatzaritza

- Gatazka-iturri diren mineralak erauztearekin edo metodo eztabaidagarrien bidez erauztearekin loturiko jarduerak, hauek, adibidez:
 - ur sakonetako meatzaritza
 - uranioa edo amiantoaren erauzteak
 - Mountain-top Removal (MTR) metodoaren erabiltzea
 - erauzketa, gatazka armatua aktibo dagoen guneeetan
 - urrea eta diamanteak erauzteak ziurtagiririk edo ziurtapen-prozesurik gabe

Tabakoa

- Tabakoaren edo osasunerako kaltegarriak diren antzeko elementuen ekoizpena eta prozesamendua sustatzen duten jarduerak.

Salbuespena

- Banaketa-jarduerak.

Giza klonazioa

3. FINANTZAZ KANPOKO ARRISKUAK INBERTSIO-ERABAKIETAN INTEGRATZEKO PROZEDURA

Jarraian, Caja Laboral Pensiones SA GFP sozietatean sartuta dauden pentsio-funtsen inbertsioak aztertu eta erabakitzekeo prozesuan ESG irizpideak (ingurumena, gizartea eta gobernantza aintzat hartzen dituztenak) integratzeko barne-prozedurari buruzko xehetasunak azalduko ditugu.

Prozedura hori urtean behin berrikusiko da, gutxienez. Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluari dagokio prozedura onartzea eta aldaketa garrantzitsuak berrestea.

3.2. FINANTZAZ KANPOKO DATUAK

3.1.1. ESG Informazioa

Inbertsio-erabakietan ESG irizpideak integratzeko prozesuan, aztergai den aktibomotaren arabera erabili beharreko informazio ez-finantzarioa nabarmendu behar da.

Zuzeneko errenta aldakorreko aktiboen (**akzioen**), zuzeneko errenta finko pribatuko aktiboen (**bonu korporatibo**) eta inbertsio kolektiboko erakundeen (**IKE-en**) kasuan, Clarity AI softwarearen bidez eskainitako informazio ez-finantzarioa erabiltzea erabaki da. Informazio hori modu agregatuan jasotzeko, hauxe erabiltzen da:

- **ESG Risk.** ESG puntuazioa ematen du, industriarekin adostuta. Puntuazioak adituen analisiak hartzen ditu oinarri, erakunde arautzaileen iritzia biltzen ditu eta industriaren estandarrei eta ESG arriskueta eragile handiei erreparatzen die. Puntuazioek hiru datu-mota biltzen dituzte: kuantitatiboak (datu neurgarriak), politikak (datu kualitatiboak) eta gatazkak (albiste gisa egituratutako datuak). Hautatutako enpresa homologoen talde batekin alderatuta enpresa bakoitzak duen errendimendu erlatiboa hartzen dute kontuan, eta enpresa-mailan agregatzen dira, materialtasun-matrize baten arabera —metrika bakoitzak sektore jakin batean finantza-eragin nabarmena izateko duen probabilitatea adierazten du matrize horrek—.

Errenta finko publikoko zuzeneko aktiboen kasuan (zor subirano nazioz gaindiko edo autonomikoaren bonuak, funtsaren likidezia kudeatzeko aldi bereko eragiketak barne direla), honako hauetan dagoen informazioa erabiltzea erabaki da:

- **Demokrazia-indizea.** The Economist egunkariako Inteligentzia Unitatearen sailkapen bat da, 167 herrialdeetako demokrazia-maila zehazten duena. www.eiu.com webgunean kontsulta daiteke.
- **Social Progress Index.** Herrialdeek beren herritarren gizarte- eta ingurumen-premiak zenbateraino asetzen dituzten neurtzen du. Social Progress Imperative elkarteak kalkulatu du, eta www.socialprogress.org helbidean kontsulta daiteke.
- **SDG Dashboard.** Herrialdeek Nazio Batuen garapen jasangarrirako 17 helburuekiko zer portaera duten neurtzen du. Hainbat erakundek kalkulatu dute (Garapen Iraunkorrerako Irtenbideen Sareak, NBErekin elkarlanean), eta www.dashboards.sdgindex.org webgunean kontsulta daiteke.

Ageriko eta eperako gordailuetako aktiboak eta deribatuetako posizioak zorroen ESG analitik kanpo geratzen dira.

3.2.2. ESG ratingaren metodologia

Zuzeneko errenta aldakorreko aktiboen (**akzioen**), zuzeneko errenta finko pribatuko aktiboen (**bonu korporatiboen**) eta inbertsio kolektiboko erakundeen (**IKE-en**) kasuan, metodologia hau erabiliko da:

- Aztergai den aktiboa Clarity Alk eskainitako ESG Riskek estalita badago, balio hori hartuko da erreferentziazat. Indize horren puntuazioa 1etik 100era bitartekoa da, non 1 okerrena den eta 100, berriz, onena.
- Aztergai den aktiboa ez badago Clarity Alk eskainitako ESG Riskek estalita, Oko balorazioa jarriko zaio.

Errenta finko publikoko aktiboak baloratzeko, pauso hauetan oinarrituta dago metodologia:

- Baterako kalifikazioa (0-100) = % 50 Social Progress Index Score + % 50 SDG Dashboard. Herrialde bakoitzak 0 eta 100 bitarteko kalifikazioa du, non 0 okerrena den eta 100, berriz, onena.
- Demokrazia-indizea (0-10). Herrialde bakoitzak 0 eta 10 bitarteko kalifikazioa du, non 0 okerrena den eta 10, berriz, onena.

3.1.3. ESG datuak integratzeko tresnak

Jarraian, ESG datuak kontsultatu eta kontsumitzeko tresnen eta plataformen erabilera zehazten da.

Inbertsioak (*front officea*)

- **Akzioak, errenta finko korporatiboa eta inbertsio kolektiboko erakundeak:** Clarity / ESG ratingen barneko Excela
- **Zor publikoa:** web-orrialdea / ESG ratingen barneko Excela

Barne Kontroleko Unitatea

- **Akzioak, errenta finko korporatiboa eta inbertsio kolektiboko erakundeak:** Clarity / ESG ratingen barneko Excela
- **Zor publikoa:** web-orrialdea / ESG ratingen barneko Excela

3.1.4. Datuaren gobernantza

Barne Kontroleko Unitatea arduratzen da ESG informazioaren gobernantzaz. Informazio hori hiru hilean behin eguneratuko da, eta Barne Kontroleko Unitateak eguneraketa urtean behin helaraziko dio, gutxienez, Administrazio Kontseiluari, aktan jasota gera dadin.

ESG informazioaren datu-baseak Caja Laboral Pensiones SA GFPren Bane Kontroleko Unitatearen fitxategietan daude gordeta.

3.2. INTEGRAZIOA

Aktiboen sorta osoaren —batez ere **arrisku material handiko** baloreen— **arriskuen kudeaketa** (*risk managementa*) **sustatu eta hobetzera** bideratutako **hurbilketa holistikoaren** ikuspegitik ulertu behar da ESG faktoreak inbertsio-erabakietan integratzeko prozesua. ESG faktoreak integratzearen helburua inbertsio-erabakietan laguntzea da; izan ere, baloreen baliozkotasunari buruzko eztabaida sustatzen du, errentagarritasuna eta arriskua kontuan hartzen dituen ikuspuntuari erreparatuta.

3.2.1. Integrazio-irizpidea

Lehenik eta behin, **integrazio-irizpidea** finkatzen da, inbertsio-erabakiak aztertu eta hartzeko prozesuan informazio hori *ex ante* eta egoki txertatuko dela bermatzeko.

Errenta aldakorra (akzioak), errenta finkoa (bonu korporatiboak) eta inbertsio kolektiboko erakundeak

- **Aktibo bakoitzeko** gutxieneko ratinga (**erabaki-atalasea**): **35/100**

Zor publikoa

- **Aktibo bakoitzeko** gutxieneko ratinga (**erabaki-atalasea**):
 - Baterako kalifikazioa (% 50 Social Progress Index Score + % 50 SDG Dashboard): **70/100**
 - Demokrazia-indizea: **6/10**

Irizpide horiek aplikagarriak dira Caja Laboral Pensiones SA GFPren pentsio-funtsen sorta osoan.

3.2.2. Diskrezionalitate-maila

Integrazio-irizpidea finkatu ondoren, inbertsioei dagozkien ESG arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko **diskrezionalitate-maila** zehazten da. Integrazio-irizpidea arrisku-gestioaren ikuspegiaren arabera zehazten da.

Errenta aldakorrean (akzioetan), errenta finkoan (bonu korporatiboetan eta zor publikoan) eta IKE-etan inbertitzearen bidezko integrazioa

- Kudeatzaileak inbertsioa egiteko aukeratu duen aktiboak 3.2.1. apartatuan zehaztutako atalasearen azpitik dagoen ESG ratinga badu, Barne Kontroleko Unitateak *ex ante* onartu beharko du eragiketa. Onespena jasota geratuko da, hartutako erabakiaren trazabilitatea egon dadin.
- Arrisku nabarmena duten aktiboetako inbertsioaren diskrezionalitatea kontrolatzeko helburuarekin, muga hauek ezarri dira:
 - **Zorroak % 20** inbertitzea, asko jota, 3.2.1. apartatuan zehaztutako atalasetik beherako **ESG ratinga** edo daturik ez duten **baloreetan**. Ehuneko hori ondasun-zorroaren zatiaren gainean kalkulatzen da.
 - **Zorroaren** gutxieneko batez besteko ratinga: **40/100**.

Beste muga batzuk:

- Bermatu beharko da zorroaren % **80k** gutxienez —IKEak eta zuzeneko aktiboak barne hartuta; hau da, akzioak, errenta finko pribatua eta zor publikoa— adierazitakoaren arabera ESG ratinga duela, dokumentu honetan azaldutako Integrazio Politika eta prozedura betetzen dituela onartzeko.

3.3. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Hurrengo ataletan, integrazio-politika betetzeari kontrol eta jarraipen egokia egiteko martxan jarritako mekanismoen berri ematen da.

3.3.1 Jarraipena eta kontrola

- Akzioetarako eta errenta finko pribaturako ESG ratinga hiru hilean behin berrikusiko da, eta zor publikoari buruzko ESG informazioa, berriz, urtean behin. Barne Kontroleko Unitateak egingo du berrikuspena, eta datu-base hori garaiz eta forman eguneratuta edukitzeaz arduratuko da.
- Era berean, Barne Kontroleko Unitateak hiru hilean behin egiaztatuko du Integrazio Politikaren pean dauden zorro guztiek prozedura honetako 2. eta 3. puntuetan ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten.
- Ez-betetzereen bat antzematen bada, Barne Kontroleko Unitateak Inbertsioen Taldeari jakinaraziko dio.
- Irizpideren bat betetzen ez bada, ESG ratingaren beherakada baten ondorioz edo informazio-estaldura nahikorik ez dagoelako, Inbertsioen Departamentuak hilabeteko epea izango du (jakinarazpena jasotzen denetik) ez-betetzea konpontzeko.